

EBAZPENA, 2024KO IRAILAREN 9KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZAREN TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN DEN PRESTAKUNTZA-ZIKOAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKOETAN 2024-2025 IKASTURTEAN ATZERRIKO HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAREN DEIALDIA

Hezkuntza Saila ekimen multzo bat bultzatzen ari da derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten konpetentzia hobetu dezaten.

Lanbide Heziketari dagokionez, Hezkuntza Sailak Europako programa hauek finantzatzen parte hartzen du: Erasmus +, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako praktikak egiteko; programa horien bidez, ikasleei aukera ematen zaie praktiken bidezko prestakuntza jasotzeko Europar Batasuneko herrialdeetan. Horretaz gainera, heziketa-moduluak atzerriko hizkuntzetan egitea ere eskaintzen du.

Bestalde, hizkuntzak giltzarri direnez ikasleen enplegarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko, eta enpresek merkatu global batean jardutea eskatzen dutenez gero, Lanbide Heziketako VI. Euskal Planak eleaniztasunaren alde egiten du nabarmen, Lanbide Heziketaren Euskal Sistema nazioartekotzeko estrategiari jarraituz. Estrategia hori lehendik ere garatzen ari zen, eta indartu egin da VI. Planarekin. Aipatu beharrekoa da planaren 7. ardatza: «LHko euskal sistema nazioartekotzea», 15. esku-hartze arloa: helburutzat ditu, beste batzuen artean, «enplegarritasuna hobetzea, beste kultura batzuetara irekitzea, ikasteko motibazioa, autokonfiantza eta beste hizkuntza batzuk ikastea».

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 28. artikulua prestakuntza-prozesuetako eleaniztasunari buruzkoa da.

Azkenik, Europako Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko gomendioak, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoak, konpetentzia eleaniztuna ezartzen du etengabeko ikaskuntzan funtsezkoak diren zortzi gaitasunen artean.. Europako Batzordeak, era berean, hizkuntzak ikastearen garrantzia azpimarratzen du, bai eta herritar guztien hizkuntza-gaitasunak hobetzen lagunduko duten sistemak indartzeko beharra ere, bereziki prestakuntza jasotzen ari diren gazteenak, Europaren dimentsioa, enplegarritasuna eta mugikortasuna indartzen laguntzeko

Ebazpen honen bidez, hizkuntza indartzeko programaren deialdia arautzen da. Programa hori prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxe publikoetan egingo da 2024-2025 ikasturtean.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Hartzaileak.

Prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeetan edozein prestakuntza-ziklo egiten ari diren ikasleek parte har dezakete atzerriko hizkuntza indartzeko programan.

Programa hau 2024/2025 ikasturtean emango da.

2. artikulua.- Eskolak emateko modalitateak.

Eskolak emateko modalitateak hauek izan daitezke:

- Presentziala
- Ez-presentziala (on line)
- Mistoa (aurrez aurreko modalitatean emango dira ikastaroko orduen % 20 gutxienez)

3. artikulua.- Irakastorduak.

Hizkuntza-ikastaroak (2. artikuluan azaldutako hiru modalitateetan) 40 ordukoak izan behar dira, gutxienez, eta 100 ordukoak, gehienez —ikastetxe bakoitzak irizten dionaren arabera—, eta eskola-ordutegitik kanpo eman behar dira, astean bi ordu gutxienez, eta zortzi ordu, gehienez.

4. artikulua.- Ikuspuntu didaktikoa.

Ikastaro horietan, alde batetik, lanbide-heziketako tituludunen lan-egoeren eguneroko erabilerei lotuta landuko da hizkuntza, eta, bestetik, ikasleek ikasten dituzten lanbide-arloekin zerikusia duten erabilera teknikoei lotuta; batik bat, komunikazio-gaitasuna. Elkarrizketan aritzea eta banaka zein taldean ahozko aurkezpenak egitea sustatuko da, eta, horrez gain, multimedia-baliabideak erabiliko dira eguneroko lanean. Heziketa-jarduera horiek hizkuntzaren erabilera sustatzera bideratutako eskolaz kanpoko jarduera ez-hezitzaileekin osa daitezke.

5. artikulua.- Izen-ematea eta bertaratzea.

1. Ikasleek borondatez eta doan eman ahal izango dute izena atzerriko hizkuntzako ikastaroan, baldin eta ikastetxeak maila homogeneoko taldeak osatzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Bertaratzea nahitaezkoa da ikastaroko hiru modalitateetan: presentziala, ez-presentziala eta mistoa. Ikastetxeetako zuzendaritzek ikasleen konpromisoa eta motibazioa sustatuko dute, egokituz jotzen dituzten metodo pedagogikoen bidez.

2. Konpromisoaren erakusgarri, izena ematerakoan, ikasleak 60 euroko fidantza bat jarri beharko du, zeina ikasturtea bukatutakoan itzuliko baita baldintza hauen arabera: modalitate presentzialean, gutxienez eskolen % 80ra joan bada, eta modalitatea ez-presentzialean (on line) ikasturteko helburuen % 80 behar bezala bete baditu.

Horri dagokionez, ikasleek eranskin hauek beteko dituzte:

- Adin txikiko ikasleak: III-A eranskina
- Adin nagusiko ikasleak: III-B eranskina

3. Fidantzaren kontzeptuan jasotako diru-sarrerak ikastetxearen gastu-kontuan sartuko dira aurrekontuz kanpoko diru-sarrera gisa, eta jarduera amaitzean, Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusian sartuko da ikasleei itzuli ez zaizkien fidantzen saldoa. Ikastetxeak III-C eranskina beteko du.

Justifikazio-aldian, ikastetxeak VI. eranskinean (parte-hartze eta emaitzen akta) adieraziko du fidantzen amaierako egoera zein den (itzulketa, bai ala ez), jasotako zuzkidura ekonomikoaren justifikazioa aurkezteko unean.

4.– Honela kontrolatuko da bertaratzea:

- Ordu presentzialak: sinaduren kontrol-orrien bidez kontrolatuko dira (IV. eranskina).
- Ordu ez-presentzialak (on-line): hiru ebidentzia-mota hauek jaso beharko dira:
 - prestakuntza-saio bakoitzaren pantaila-argazkia, parte-hartzaileak bertaratu direla adierazten duena.
 - Klase-emailearen adierazpena (V. eranskina sinkronoak eta V. eranskina bis asinkronoak), saio ez-presentzialen (online) plangintza eta pertsona bakoitzak saio bakoitzean duen bertaratzea (bai edo ez) jasotzen dituen.
 - Eta, erabilitako plataformak halakorik sortzen badu, pertsonak, datak eta konexio-denborak identifikatzen dituen plataformako konexioen erregistroa.

6. artikulua.- Gainbegiratzea.

Ikastetxeko zuzendaritzari dagokio ebazpen honen 2, 3, 4 eta 5. artikuluetan jarritako betekizunak betetzen diren gainbegiratzea.

7. artikulua.- Taldeak antolatzea.

Modalitate presentzian, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 6 ikasle egongo dira, eta gehienez 20. Modalitate ez-presentzian (online), ez da egongo gutxienezko eta gehieneko ikasle-kopururik.

Hizkuntza bakoitzean taldeak eratuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) ezarritako mailak kontuan hartuta: A1, A2, B1.1, B1.2 eta B2. Ikastetxe batek maila bereko modalitate presentzian interesa duten 20 ikasle baino gehiago baditu, maila horretako bi talde egin ahal izango ditu.

Modalitate presentzian baimendutako talde bakoitza atzerriko hizkuntzako irakasle baten erantzukizuna izango da; nolahi ere, esku-hartze puntualak egin ahal izango dira beste laguntzaile batzuen parte-hartzearekin.

Izena eman arren, aurrez aurreko modalitatean talderik osatzea lortu ez duten ikasleei itzuli egingo zaie ebazpen honen 5. artikuluan aipatzen den fidantza.

8. artikulua.- Hizkuntza-eskolak ematea, finantzatzea eta ebaluatzea.

1. Jarduera hauetan esperientzia egiaztatua duen kanpoko enpresa batek emango ditu eskolak. Modalitate presentzian, jarduera hori ikastetxean bertan egingo da.

2.– Ikastetxeak gehienez ere 50 euro jasoko ditu modalitate presentzian sortu den talde baimendu bakoitzaren irakastorduko. Modalitate ez-presentzian (online) sortu den talde baimendu bakoitzaren zenbatekoa 4 eurokoa izango da irakastorduko eta ikasleko. Modalitate mistoan (gutxienez ikastaroaren orduen % 20 modalitate presentzian) sortu den talde bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 5 eurokoa izango da irakastorduko eta ikasleko.

Nolanahi ere, guztira eman beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu aurrekontu-zuzkidura, erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa proportzioan egokituko da, baimendutako talde eta ikasleen arabera, harik eta laguntza guztiak moldatu arte aurrekontu-zuzkidurara.

Aurrez aurreko taldeak esleitzeko eta baimentzeko orduan, kontuan hartuko da zer bertaratze-maila izan duten ikasleek aurreko ikasturteetan. Orobat hartuko da aintzat zenbat ikasleek ez duten osatu eskolen %80a, horregatik baimenak murriztu ahal izango

baitira.

3. Ikasturte-hasieran, ikasleei proba bat egingo zaie, matrikulatu diren mailaren arabera. Eskolak amaitu ondoren, ikastetxeek azken maila-azterketa egingo dute, eta azterketa horren emaitzak ikastetxe publikoentzat jarritako "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bidez bidaliko dituzte. Emaitza horiek justifikazioarekin batera aurkeztuko dira, VI. Eranskinaren arabera beteta. Bertan, ikasleek programan izandako parte-hartzeari buruzko informazioa, fidantzen egoera (itzultzea, bai ala ez) eta hasierako eta amaierako probetan lortutako kalifikazioak jasotzen dira.

4. Ikasleek Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak emango duen gogobetetasun-inkesta bat egin beharko dute.

5. Ikastaroak ematen dituzten enpresek aprobetxamendu-ziurtagiri bat egin eta eman beharko diote ikastaroa behar bezala amaitu duen ikasle bakoitzari.

9. artikulua. – Kontratazio-organoa eta enpresari ordaintzea.

1. Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzari dagokio atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak emateaz arduratuko diren enpresak kontratatzea.

2. Modalitate presentzialaren kasuan, kontratatutako enpresei hilero egingo zaizkie ordainketak, ikastetxearen kontuaren kargura. Hori egiteko, enpresak aurrekontua eta faktura aurkeztu beharko ditu, behar bezala beteta, langile-gastuen kontzeptuan, eta, bertan, hilabete bakoitzean zenbat eskola-ordu eman dituen adierazi beharko da, edo ikastaroko ikasleek erabiltzeko zenbat tresna edo lizentzia informatiko erosi diren.

Modalitate ez-presentzian, badago ordainketak hilero egin beharrean bi alditan egitea (hasieran eta amaieran), ikastetxearen kontuaren kargura. Horretarako, enpresak aurrekontua eta fakturak aurkeztu beharko ditu, behar bezala beteta, langile-gastuen kontzeptuan, eta, bertan, hilabete bakoitzean zenbat eskola-ordu eman dituen adierazi beharko da, edo ikastaroko ikasleek erabiltzeko zenbat tresna edo lizentzia informatiko erosi diren.

3. Kontratatutako enpresak ikasleen sinadura-aktak aurkeztu beharko dizkio ikastetxeari, emandako saio bakoitzeko (IV. eranskinaren arabera, modalitate presentziala bada, eta V. eranskinaren edo V. bis eranskinaren arabera, modalitate ez-presentziala bada. Ikusi 5.4 artikulua). Akta horiek ikasleen bertaratzearen berri izatea ahalbidetuko dute, eta ikastetxean gordeko dira, egiaztapenak egin behar izanez gero ere.

10. artikulua.- Izapidetze elektronikoa.

Interesatuta dauden ikastetxeek bide elektronikoak erabiliz eskatuko, kontsultatuko eta egingo dituzte prozedura honetako izapide guztiak, ikastetxe publikoentzat jarritako "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bitartez.

Atari horretan argitaratuko dira deialdi honen fitxa eta beronekin zerikusia duten berriak. Fitxa horren bidez, prozesuan parte hartzea eskatzeko erabilera-gidak eta jarraibideak lortu ahal izango dituzte erabiltzaileek, eta prozesuaren jarraipena egin ahal izango dute.

11. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskaera egiten duten ikastetxeek ebazpen honetako eranskinak baino ez dituzte erabiliko dokumentazioa aurkezteko, eta behar bezala beteko dituzte. Aurreko deialdietako eranskinak eta/edo eskaneatutako eranskinak dituzten agiriak baztertu egingo dira.

2. Eskabideak ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bitartez aurkeztuko dira.ra

Ikastetxe eskatzaileek 2024ko urriaren 9a arte aurkeztu ahal izango dute eskabidea, eranskin hauek betez:

- I. eranskina: Eskabidea, ikastetxeak atzerriko hizkuntza indartzeko egiten dituen prestakuntza-jarduera guztiak jasotzen ditu.
- II. eranskina: Prestakuntza-jardueraren fitxa. Fitxa bat beteko da programan parte hartzen duen ikastetxeko talde bakoitzeko.

Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

3. Ikastetxeak zainduko ditu familien baimenak eta adin nagusiko ikasleek egindako eskabideak (III-A eta III-B eranskinak betez egindakoak).

Aipatutako dokumentu-ereduak ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bidez jaitsi daitezke, PDF formatu betegarrian.

12. artikulua.- Ikastaroak baimentzeari buruzko jakinarazpenak.

Ebazpena ikastetxe publikoentzat jarritako “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bidez jakinaraziko zaie parte hartzen duten ikastetxeei.

Ikastetxeei 2024ko azaroaren 30a baino lehen jakinaraziko zaie zenbat ikastaro baimendu diren.

13. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak

1. Egiaztatze- eta kontrol-eginkizunak esleituta dituzten erakundeen eginkizun horiek bete ahal izan ditzaten, ikastetxeak gutxienez 5 urtez gorde beharko ditu dokumentu hauek:

- bertaratzea (IV, V edo V bis eranskinak),
- fidantzak (III- A eranskina edo III -B eranskina eta III -C eranskina),
- parte-hartzea eta emaitzak (VI. eranskina)
- Ordainketak (VII. eranskina) eta gastuen jatorrizko ordainagiriak.

2. Ikastaroetako saio bakoitza amaitzean, bertaratze metatuko balantze partziala egitea erabaki zuzenak hartu ahal izateko, deialdiaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera –artikulu hori hasieran emandako zuzkidura ekonomikoaren baldintzak aldatzeari buruzkoa da–.

3. Bertaratzea kontrolatzea 5. artikuluan aipatutako dokumentuen bidez (IV. V. eta V bis eranskina). Ikasleak bertaratu direla egiaztatuko dute, eta ikastetxean gordeko dira, egiaztapenik egin behar denerako.

4. Orduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu duten ikasleen kopurua talde bakoitzeko 3 ikasle baino gutxiagokoa bada, une horretatik aurrera eta ikasturtea bukatu artean, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Ikastetxeko zuzendariek Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, helbide elektronikoa honen bidez: m-lasagabaster@euskadi.eus.

5. Ikastaro osoa egitea dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartu den talde bakoitzeko irakastorduen kopuruarekin eta banaketarekin.

6. Baldintzak betetzen ez badira, emandako zuzkidura aldatzeko edo itzultzeko

eskatzea.

7. Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari laguntza ematean kontuan izandako edozein baldintzaren aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzea.

14. artikulua.- Laguntza ekonomikoa aldatzea.

Hasieran emandako zuzkidura ekonomikoa aldatu egingo da kasu hauetan:

1. Saio bakoitza amaitzean, bertaratzearen balantze partziala egin beharko da:

1.a. Modalitate presentzialean:

- Orduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu duten ikasleen kopurua talde bakoitzeko 3 ikasle baino gutxiagokoa bada, une horretatik aurrera eta ikasturtea bukatu artean, dirulaguntzaren zenbatekoa hainbanatu egingo da.

Ikastetxeko zuzendariak horren berri eman beharko dio Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari, helbide elektronikoa honen bidez:

m-lasagabaster@euskadi.eus.

1.b. Modalitate ez-presentzialerako (online) edo mistorako:

Ikasleren batek ezin badu gutxieneko % 80ko bertaratzea gainditu, ikasle horien artean ordura arte eman dituzten orduak baino ez dira ordainduko.

2. Irakastorduak ez badira onartutakoak adina, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da, azkenean eman diren orduen arabera.

Aurreko kasuetako bat gertatzen bada (1a, 1b), hasiera batean emandako zuzkidura aldatzea dakarrena, ikastetxeei jakinaraziko zaie, ikastetxe publikoentzako "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" atariaren bidez. Horren ondoren, 15 eguneko epea ematen da, jakinarazpena egin den hurrengo egunetik hasita, alegazioak egin eta bidezko deritzon dokumentuak edo frogagiriak aurkeztu ahal izateko. Alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan, erakunde onuradunak soberan jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

15. artikulua. – Prozedura ebaztea

1. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari dagokio deialdi honetan aurreikusitako zuzkidurak ebaztea.

Ebazpen hau ikastetxe publikoentzat jarritako "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bidez jakinaraziko zaie parte hartzen duten ikastetxeei.

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>.

2. Ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Epea amaitu eta erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazi ezean, ulertuko da eskabidea ezetsi egin dela.

16. artikulua.- Programa egin izana justifikatzea.

Ikastaroak amaitu ahala, eta 2025eko ekainaren 30erako, ikastetxe onuradunek “Herri-ikastetxeak / Deialdiak” atariaren bidez aurkeztu beharko dituzte enpresa emaileari ordaindutako fakturen kopiak, eta eranskin hauek ere bai, behar bezala beteta:

- III-C eranskina
- IV. eranskina. Bertaratze presentziala.
- V. eta/edo V. bis eranskina. Online bertaratzea.
- VI. eranskina. Ikasleek programan izandako parte-hartzearen laburpena, ikasleei fidantzak itzultzeko amaierako egoera eta ikasleen hasierako eta amaierako probaren emaitzak.
- VII eranskina. Memoria ekonomikoa.
- Ikastetxeari buruzko balorazioa.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 9an

Rikardo Lamadrid Intxaurreaga
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria